

*Rafael Balago zutik eta
João Paulo Brito eserita.
Mural Agentziako
kazetariak lortzen dute
kazetaritzaren bidez
Sao Pauloko auzoetan
eragitea.*

LANDER ARBELAITZ

Mural agentzia

Sao Pauloko periferietatik kronika burujabeak

João Paulo Brito eta Rafael Balago 1988an jaiok dira Sao Paulon. 12 milioi lagun bizi dira Brasilgo hiri erraldoi horretan eta argi dute hedabide nagusiek ez dutela hiri osoan gertatzen dena jasotzen, ezta gutxiago ere. Periferiak informatiboki zein modu estereotipatuan jorratzen zituzten ikustez nazkatuta, auzo hauetako kazetari gazteen sarea osatzeari ekin zioten. Emaita: Mural Agentzia. Bakea eta Duintasuna elkarrekin Euskal Herrira ekarrita, proiektua ezagutzeko aukera izan dugu.



Lander Arbelaitz Mitxelena
@larbelaitz

Nola sortu zen *Mural* eta zertarako?

Rafael Balago: Bruno Garcés izeneko kazetariak bloga ireki zuen Sao Pauloko periferiei buruz hitz egiteko. Berak zioen, askotan idazten zuela atzerriko herrialdeez, baina gero, ez zuela bertako auzo askori buruz sekula idatzi, eta leku horiez, beti oso albiste txarrak ematen zituztela hedabideek. Hilketak, biolentzia... estereotipoak jaun eta jabe. Pixkana gorputza hartzen joan zen eta formazioa ematen hasi zen periferian bizi zirenen gazteei, beraiek informa zezaten bizi zirenen lekuan gertatzen zirenen gauzez. Orduetik, blog hori berri agentzia bilakatu da.

João Paulo Brito: Sao Pauloko periferiak aipatzen ditugunean, hitz egiten ari gara zentrotik urrun dauden auzoak. Askok ez dute ez zinema, antzoki eta oinarritzko prestazio publikorik. Erdi-gunera joateko autobusa hartu eta bizpahiru ordu behar dira leku hauetatik, batzuetan gehiago. Hedabideetan nagusi diren klase ertaineko kazetariak

ez dituzte ezagutzen periferiak. Ez dute ezagutzen errealitate hau eta ez dute pertsonen bizitzaz idazten, dagoen aktibitate kulturalaz. Beti hitz egiten dute bandidoek edo hiltzaileek, pertsona txiroen kriminalizazioa izugarria da. *Mural* agentzia aitzindaria da, auzo hauek periodistekoki modu positiboan jorratuz. Eredugarri ikusten gaituzte askok, masa hedabideek auzo hauek jorratu behar lituzketen modua praktikan jartzen dugulako.

Zer nolako kazetaritza egiten duzue?

J.P. Brito: *Mural* agentziaren DNAn darabagu ez dugula beste hedabideek egiten dutena erreproduzitu nahi. Ez dugu soilik jende txiroaren arazoez hitz egiten. Enpatizatzen saiatzen gara, irakurtzea merezi duten historia ederrak bilatzen edo, proiektu interesgarriei buruzko albisteak jorratzen ditugu. Sao Paulon kultur-leherketa handia bizi dugu azken urteotan: ekimen asko egiten dira, zinema herrikoiak, kontzer-

tuak eta abar. *Mural* agentziaz hau jorratzen dugu, herritarrei errealitate hau hurbiltzeko. Hemen bizitza dago, adi egon behar duzu, gauza interesgarriak daude.

Periferia hitza zuen proiektuan ardatza da.

J.P. Brito: Ez dakit ongi gauzak nola diren hemen Euskal Herrian. Sao Pauloz ari garenean, jendeak lanera joateko orduak egiten ditu garraioan. Badaude favelak, baita auzo egituratuagoak ere, baina funtsean hiri txikiak dira beste erraldoi baten barnean. Milioika pertsona horien multzoan, auzoek berezko dinamika dituzte, eta batzuek adibidez, Bilboren tamaina dute. Eremua handia eta oso ezberdina da. Hedabide handiek oso modu ezberdinean kontatzen dituzte erdigunean bizi baldintza hobea gogor bizi direnen albisteak, eta periferian gauden milioika pertsonaren bizitzak.

R. Balago: Hiriko kazetari gehienak Sao Paulo erdialdeko koadrilateroan bizi



dira, han egiten dute lan, eta kanpoaldeko auzo batera joateko kazetariak bi edo hiru ordu behar ditu autoan, lan egin eta itzuli beste horrenbeste ordu igaroz errepidean. Ez dira heltzen istorio haue-tara gu heltzen garen bezala, gu han bertan baikaude. Nik askotan ikusi dut kazetari bati elkarrizketa interesgarri bat eskaini eta balizko elkarrizketatua urrun bizi delako kazetariak uko egitea. Erredakzioetan askotan gertatzen da.

Zein da errealitate mediatikoa Sao Paulon?

R. Balago: Batzuek egunkariak erosten dituzten arren, periferietan informazio iturri nagusia telebista da. Pozik gaude ikusi izan dugulako guk argitaratutako informazioek batzuetan eragiten dutela telebista kate handiek ondoren gai horiek jorratzea. Kontaktuak eskatzen dizkigute batzuetan.

J.P. Brito: Aipagarria da guk artikulu batzuk idatzi izan ditugunean auzoren bateko beharrei buruz, handik gutxira, udaletxeko langileak joaten direla konponketak egitera. Arazo horiek beste hedabideek ez zituzten aipatzen, eta beraz, gurea presio moduko bat ere bada.

Zenbat kolaboratzaile dituzue eta nola egin duzue sarea?

R. Balago: Iaz 58 lagunek idatzi zuten zerbait *Muralen*, egun 80 bat gara. Kontutan hartu behar da denbora librean egiten den lana dela, eta denok beste lanpostu bat dugula. Urtean behin bil-tzen gara denok, proiektuaz hitz egiteko.

» **RAFAEL BALAGO:**
“Auzoetan deialdiak egin, webgunean jorratutako materiala inprimatuta eraman eta kaleko paretetan itsasten hasi ginen jendeak irakur zezan”

J.P. Brito: Orain gutxi arte ez zen ohikoa gazte txiroak unibertsitatera joatea. Lula da Silvak bultzatutako programa sozialei esker, aldaketa handia bizi izan dugu Brasilen. Beka ugari sortu zituzten eta gu biok, adibidez, beka hauei esker unibertsitatera joan ginen. Gure familietan unibertsitate ikasketak dituzten lehenak gara. *Mural* agentziak honi ere erantzuten dio. Unibertsitatera heldutako gazteok, uneren batean gu bezalako gazteek osatutako agentzia bat baze-la jakin genuen, gu bezala periferiako gazteek osatua gure auzoetako hitz egiteko modu interesgarrian.

Zuen lana zabaltzen al da komunitateetan?

R. Balago: Hasieran periferiaz hitz egiten genuen erdiguneko jendearentzat, baina gure arteko eztabaida askoren ostean, hori aldatzen hasi ginen. Komu-

nitateentzat idazten hasi ginen eta gure proiektua ezagutarazten. *Expo Mural* deitu genuen ekimena abian jarri genuen. Herritar askok ez duenez Interneteko konexiorik, hasi ginen auzoetan deialdiak egiten, webgunean jorratutako materiala inprimatuta eraman eta kaleko paretetan itsasten jendeak irakur zezan. Orain gutxi, Facebooken taldeak egiten hasi gara auzoka, jendea bildu eta materiala zabaltzeko, errazago komunikatzeko moduak lortuz.

Nola dago Brasil gaur egun kazetaritza egiteko?

J.P. Brito: Oso gaizki. Faktore batzuek zailtzen dute kazetariaren lana. Datuak ez dauzkate, baina Brasil munduko herrialderik arriskutsuenetakoa da kazetariarentzat. Sao Paulo, Rio de Janeiro edo Brasilian egiten den kazetaritza seguruagoa izan daiteke. Kazetaritza urbanoagoa nolabait esatearren, medio handien egoitzetan, batzuek segurtasuna dute lana egiteko. Baina beste leku batzuetan, herrialdearen iparraldean, ipar-ekialdean eta hegoaldean, edo gu lanean aritzen garen lekuetan adibidez, kazetariak oso pertsona sinpleak dira, formazioa dutenak, baina beste gauzetan ere lan egin behar dutenak. Polizia oso biolentoa da eta kazetariak mehatxatzen ditu. Manifestazioak jorratzean begia galdu duten kideak badaude, beren familiak mehatxatu izan dituztenak, edota Brasildik ihes egin behar izan dutenak ere, hilko zituztelako. Kasu konkretu bat aipatzearren, Brasilgo Ikerke-



ta Kazetarien Elkarateak iaz hil zituzten kazetariei buruzko filma egin zuen. Bertan jorratzen da irratian lan egiten zuen kazetari baten kasua, politikari lokal baten ustelkeria salatu zuen goiz batean eta arratsaldean tiro bat jota hil zuten. Izugarria da eta gertatu egiten da.

Zein dira kazetaritza zailtzen duten beste faktoreak?

J.P. Brito: Beste bat zentsura judiziala da. Politikariren baten ustelkeria salatzen den aldiro, politikari horrek prozesu bat abiatzen du zure aurka. Dirua, lana, indarra... galtzen ditu kazetariak. Eztabaida handia sortzen ari da gizartean gai honekin.

Eta hirugarren faktorea prekarietatea da. Erredakzio handietan ere oso lan prekarizatu dute. Kazetari askok ez du erregistro formal edo oporrik, soldata baxuak dira, eta lan gutxi dagoenez hori onartu behar izaten du jendeak.

Arazoak izan al dituzue boterearekin?

J.P. Brito: Biolentzia eta krimenen gaiak ez ditugu jorratzen normalean. *Mural* kazetariaren kolektiboa garrantzitsua da lehen aipatu dugun ikuspegitik periferien jarraipena egiteko. Badaude beste hedabide batzuk zehazki beste tematika batzuen jarraipena egiten dutenak. Adibidez, Brasilen *Ponte* izeneko hedabide oso borrokalaria eta indartsua daukagu, eskarmentu handiko kazetariarekin, jarraitzeko segurtasun publikoaren eta giza eskubideen urraketak. Guk batzuetan, gai horiekin lotutako informazioak esku-

» **JOÃO PAULO BRITO:**
“Brasil munduko herrialderik arriskutsuenetakoa da kazetarientzat. Polizia oso biolentoa da eta kazetariak mehatxatzen ditu”

ratzen ditugunean, nahiago izaten dugu haiei eman, hobeto egingo dutelako.

Brasil oso une interesgarrian dago hedabide berriak sortzen ari baitira, *Agência Pública* daukagu ikerketa kazetaritza egiten, bada beste hedabide berri bat epe luzeko kazetaritza esplikatihoa egiten duena, azken ordukoarekin kezkatuta ibili gabe. *Mural* ekosistema horren parte da.

Nola finantzatzen zarete?

R. Balago: Agentzia gara eta gure edukia beste hedabideetan publikatzeagatik kobratu egiten dugu, *Folha de S. Paulo* egunkarian adibidez. Orain egitura finkoa sortzeko finantzazio bila gabiltza, nazioarteko programen bidez. Internet bidezko diru-bilketa kanpaina ere egin genuen hasieran. Finantzazioa dibertsifikatzen saiatzen ari gara, baina oraindik lan asko daukagu egiteko.

Ingelese ere informatzen duzue. Zergatik?

J.P. Brito: *Global Voices*ekin elkarlanean ari gara. Bertan argitaratzen dituzte gure testu batzuk eta beste hizkuntzetera itzultzen dituzte. Garrantzitsua da ingelesez ere informatzea, bestela errealitate hau ez baita nazioartean existitzen.

Amaitzeko, aukera dezakezue *Mural*en argitaratu duzun istorio bana?

R. Balago: Orain urtebete geltokiz geltoki joan ginen, erregela batekin, trenetik nasara geratzen den tartea neurtzen. 91 geltoki orotara eta batzuetan 40 zentimetroaraino heltzen zen zuloa. Konturatu ginen istripu asko gertatzen zirela jendea zulo horietara erorita, egunean hiru. Horretaz idatzi genuen erreportaje berezi bat datu guztiak mahai gainean jarritz. Tren agentziak ere ez zituen datu hauek, kolpe bikaina izan zen. Gero telebista joan zen eta gai beraz erreportajeak egin zituzten, eta gobernua hasi zen goma batzuk gehitzen zuloa konpontzeko. Kasualitatea, soilik erdiguneko geltokietan egin zituzten konponketak.

J.P. Brito: Polita iruditu zitzaidan favela bateko eraikin bati buruz egin genuen istorioa. Zazpi pisu zituen, baina lehenik bat egin zuten, denbora batera gero beste solairu bat gainean, gero beste bat, gero beste bat eta horrela zazpi solairura heldu arte. Dena inprobisatuta. Galdera zen: nola da posible etxe hau zutik egotea? Eta etxeak eraikitzen dituzten jendearekin joan ginen, langileekin, eta gakoak erakutsi zizkien egileak. Ona izan zen. ■